

hiruka

Neguko berezia • 143. zenbakia

2018ko abenduaren 13a



Hator gure altzora



Iratze Ormatza Imatz

Bakioko eskolan ikasi nuen txikitan, gero Mungiako institutuan. Handik Ingalaterrara joan nintzen, ingelesa ikasten lehenengo, eta Soziologia gero, York eta Kent-eko unibertsitateetan. Gauza berri asko ikusi eta ikasita etorri nintzen etxera, eta sormenari ekin nion. Ikasten eta beharreak eman nituen urteak, Itzulpengintza masterra ere egin nuen. Geroago, Hego Ameriketara sei hilabete egin nituen motxilagaz, eta han bizitakoagaz liburua osatu nuen: *Hegoak*. Orduan hasi nintzen helduentzako ipuinak kaleratzen: 23 ipuin ditut argitaratuta *Idatz&Mintz*-en eta *Gaztezulo*-n. Sei urteko alaba daukat; berarentzat eta zuontzat idatzi dut ipuin hau.

Eskolan, lehenengoz elkar ikusi, eta lagun egin gara Hodeia eta biok. Laster izango dira Gabonak, oparien zerrenda egingo diot Olentzerori. Hodeiak zer nahi izango ote du? Eta zer gura duzue zuei ekartzea?



Hodeia eta biok

Olentzerori euskal dantzarako jantzia eskatu diot nik, eta lera bat, eta ipuinak, marrazki asko dituzten horietakoak. Ea ez duen ezer ahazten, zeren nik gaur etxerako lanen karpeta ahaztu dut etxean. Irakasleari ez zaio batere gustatu nik karpeta ahaztea. Hala ere, egun ederra izan da gaurkoa: lagun bat egin dut, eskolara etorri berria. Hodei daukala izena esan du irakasleak, baina niri HodeiA daukala esan dit lagunak. Irakasleari erratu dela esan diot, HodeiA dela. Baietz erantzun du irakasleak: «Egia da, bai, barkatu, Ho-de-i-a». Jolastokian harrapaketa ibili gara; inork baino azkarrago egin du arinetan Hodeiak, eta den-denok atrapatu gaitu lehengoan!

Arratsaldean, peluxe guztiak atera ditugu geurean, eta olgetan, ilargira joan gara peluxeakaz; han ilargitarrak izan ditugu itxaroten, eta haiekaz joan gara ilargiaren atzeko aldera, eta ezkutaketan ibili gara, ederto batean. Barre asko

egin dugu ilargitarrakaz: urdinak dira, hanka txikitxoak dituzte, eta aurpegia eta begiak, berriz, oso handiak. Espazio-ontzian jaitsi behar izan dugu handik, zeren txizalarri izan gara, eta esan digute han ezin dugula txiza egin.

Espazio-ontzitik irten garenean, ilargitarrak marraztu ditugu, eta ondoan bat bestearen irudia egin du. Praka bakeroak eta jertse gorria izan ditu Hodeiak, eta ilea luze marraztu diot, nahiz eta ez duen hain luze. Hodeiari asko gustatu zaio ile luzearena. Berak bi trentza marraztu dizkit, soineko berdea, eta galtzerdi horiak tximeletakaz. Txizari eutsi ezinik joan gara galopan komunera. Pixa egiten nagoela, Hodeiak algaraka esan du: «E! Nik ere pitilina daukat; neska naiz ni ere!». Eta saltoka hasi gara, eta barreka.

Hodeiak galdetu dit ea zer eskatuko diodan Olentzerori. «Jantzi bat, lera bat, eta ipuinak», esan diot. Berak ipuinak ere eskatuko dizkio, eta dinosauroak



eta puzzleak. Gurako luke jantzi bat ere eskatu, baina beldur da ea barre egingo ote dioten. «Zergatik?», galdetu diot nik. Eta berak: «Barre egin didatelako aurreko eskolakoek eta Iruri lehengusina nagusiak ere bai, neska naizela esan diedanean edo soinekoren bat jantzi dudanean». «Oso txarto», esan diot nik. Baina berak azaldu dit triste egoten dela inoiz horregatik, eta batzuetan, lotsa ematen diola den modukoa izateak. «Lotsa?», esan diot nik, «baina oso jatorra zara, eta ezin hobeto pasatzen dugu-eta; oparien egunean lagunduko dizut nik, zure etxera joango naiz, eta inork ez digu barre egingo».

Gabonetako apaingarriak eta arbola ipini ditugu etxean, Gabon-kantak abestu eskolan; taloa jan dugu San Tomas egunean, eta irrikan egon gara Hodeia eta biok, guk ere soinekoa jantzeko, baina itxaron behar izan dugu. Azkenean, eguna heldu da! Lera bat, hiru ipuin handi, eta jantzia ekarri dizkidate. Hau poza! Soinekoa jantzita, Hodeiarenera joan naiz.

Asko gustatu zaizkit Hodeiaren dinosauroen puzzleak, dinosauro ibiltaria, eta jantzia. Oso dotore gaude biok. Iruri lehengusinak esan digu guapa-guapa dagoela Hodeia, eta ederrak direla soinekoak; berak ere nahi duela halako soineko bat. Jirabiraka, Hodeiak esan dio: «Bai, politak, ezta?». Orduan, lotsaz gorritu da Iruri, gogoratu duelako barre egin izan diola. «Bai, ezin politagoak; ez nizun inoiz barre egin behar». Eta pozaren pozez, barrez hasi dira.

Eskutik helduta kalera jaitsi gara, eta pentsatu dugu hurrengoan ilargira ere joan beharko dugula gure lagunei erakusteko jantziakaz zein ondo egiten dugun dantzan. Eta hasi gara pentsatzen beste marrazki bat ere egin behar dugula, eta dinosauroak marraztuko ditugula, eta elurra egiten duenean, leran ibiliko garela. Gauza asko ditugu egiteko. Gora!